

FUNTSEZKO JARDUERAK

Hornitzaileei egindako erosketak, bizikleten eta ekipamenduaren salmenta eta bezeroekiko harremanak dira aurrera eraman beharko ditugun funtsezko jarduerak.

Produktuen eskaintza zabala.

Bezero desberdinei zuzendutako produktuak eskaintzen ditugu. Bizikletarekin kirol bezala aritzen diren bezeroentzako arropa egokia, eta garraiobide bezala bakarrik erabiltzen duten bezeroetarako ekipamendua: kaskoak, tinbreak... Adin guztietarako bizikleta desberdinak eskaintzen ditugu, baita mota desberdinekoak ere: mendikoak, errepidekoak, hirikoak... Produktuak aparte, bizikletak konpontzeko zerbitzua eskaintzen dugu.

Eraginkortasuna.

Bizikletak konpontzeko zerbitzua ahalik eta azkarren izatea saiatzen gara, bezeroak denbora luzez ez itxaroteko eta bere bizikleta azkar berreskuratzeko.

Bezeroekiko arreta.

Aurrez aurre, telefonoz eta webgunearen bitartez eman daiteke. Dendan beti egongo da norbait telefonoaz arduratzen dena, eta deiak edozein momentuan hartzeko aukera duena; eta egongo da beste langile bat dendan bertan dauden bezeroei arreta emateko.